

Prentsa oharra

Nota de prensa

Edukiontzi marroia erabiltzeagatik hobariak itzuliko dira

13.000 donostiarrek baino gehiagok jasoko dituzte 298.647,55 euroak

Donostiako Udalak zaborren tasari dagokion hobaria itzuliko du. Hau da, bosgarren edukiontzia, material organikoa konpostatzeko erabiltzen dena, erabiltzeagatik. Guztira 13.333 donostiar dira, eta guztizko zenbatekoa 298.647,55 eurokoa izango da.

Hiri Mantenimenduko zinegotzi Miguel Angel Diezek adierazi duenez, "2019an bio-hondakinaren gordailuaren datuak aztertu ondoren, bai maila indibidualean bai komunitarioan, ordenantzan ezarritako hobarien onuradunak 13.333 erabiltzaile direla ezarri da, eta horien itzulketaren zenbatekoa 298.647,55 eurokoa izango da".

Materia organikoaren edukiontzia erabiltzeagatik edo konpostatzeagatik zenbateko horiek tarteka itzuliko dira. Erreklamazioa jaso ez duten erabiltzaileek irailaren 30era arteko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko hurrengo bi moduetako batean:

Udalaren webgunean (www.donostia.eus)

Udalinfoko bulegoetan egin daitezke

Hobariak erabilera-ehunekoan arabera daude:

5. edukiontzia	Portzentaia	Erabiltzaileak	Zenbatekoa
	100%	11.462	21,78€
	75%	345	16,33€
	50%	223	10,89€
	25%°	445	5,44€
Etxe Konposta	100%	753	47,36€
	75%	3	35,52€
	50%	4	23,68€
	25%	5	11,84€
Auzo Konposta	100%	91	28,41€
	75%	0	
	50%	0	
	25%	2	7,10€